

Lan deialdia:

Parte-Hartze teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua **Gasteizen**, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- **Jardunaldi osoko** lanaldia abendura arte.
- **Urtean 26.805€-ko** (soldata gordina).
- EGKren **barne hitzarmenak** araututako lanpostu bat eta **EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean**.
- **Lantalde gazte eta dinamiko** batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren **parte-hartzearen** alde lan egitea.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan arloari dagozkion **proiektuak** eta **ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatzea**.
- Erakundearen lan-arlo guztiarekin **ekintzak koordinatzea**.
- Elkarte, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin **harreman zuzena mantentzea** eta **parte-hartzearekin lotutako proiektu eta prozesuak garatzea**.
- Administrazioaren Gazte Planak eta **gazteria politikak garatzeko prozesuetan parte hartzea**.
- EGK-ko arlo teknikoetan **zeharkako gaien lanketa** sustatzea.
- **Erakunde Publikoekin bitartekaritza** eta **elkarlana** burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, eta beste edozein).
- **Gizarte eragileekin elkarlana** bultzatu eta garatzea.
- **Elkarteek** eta **gazteek** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutzea eta haietan parte-hartzea.
- Dagokionean lan-arloko gaiei buruzko **adierazpenak eta analisi publikoak** egitea.
- Elkarrekin **harreman zuzena** izatea.

ESKATZEN DA:

- **30 urte baino gutxiago** izatea.
- Euskal **elkartegintzaren, gizarte mugimenduaren eta parte-hartze modu ezberdinen errealitatearen ezagutza** izatea.
- Gazteen, eta oro har, gizartearen errealitatearen **ezagutza** izatea.
- Parte-hartze prozesu, egitasmo eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta beraietan parte hartu izana.
- Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko **maila altua** (EGA, HABE 3..)
- **Gizarte arloko goi ikasketak** izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaietan espezializatu izana (bereziki parte hartzearekin lotutako ikasketak gehigarriak izatea)..
- **Lantaldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna** eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- **Malgutasuna**: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- Lanean hasteko **berehalako prestutasuna** izatea.

BALORATUKO DA:

- **Lantaldean** aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta **ardurak** hartzeko gaitasuna izatea.

- Ekimen propioak **autonomiaz** garatzeko gaitasuna.
- **Antolaketarako** gaitasuna.
- **Harremanetarako** gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- **Ingelesa eta beste hizkuntza** batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatikaren ezaguerak.
- Elkarre ezberdinetan parte hartze aktiboa (kirol munduan, begirale munduan...)

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

- Epea: **abuztuaren 4a arte** goizeko 12:00ak arte.
- Curriculum eta motibazio gutuna bidali komunika@egk.eus helbidera. Gaian **“Parte Hartzte Teknikaria”** idatzi.
- **Curriculum dokumentua honela izendatu:**
IzenAbizenak.CV_PARTEHARTZE.pdf/doc.
- **Motibazio Gutuna honela izendatu:**
IzenAbizenak.KARTA_PARTEHARTZE.pdf/doc.

Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

Motibazio gutuna eta curriculumen bidalketa, abuztuaren 4a arte (eguerdiko 12:00ak arte).
Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, abuztuaren 9an.
Froga Idatzia Gasteizen, abuztuaren 13an (goizean)
Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, abuztuaren 19an.
Elkarrizketa eguna, abuztuaren 21ean.
Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, abuztuaren 22an.
Lanean hasteko data, abuztuaren 26an.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DATOS	
TRATAMENDUAREN ARDURADUNA RESPONSABLE DEL TRATAMIENTO	EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA CONSEJO DE LA JUVENTUD DE EUSKADI
DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN KONTAKTU DATUAK CONTACTO PERSONA DELEGADA PROTECCIÓN DATOS	koordinatzaile@egk.eus
TRATAMENDUAREN HELBURUA FINALIDAD DEL TRATAMIENTO	Parte-hartzte Teknikaria lanposturako hautagaien datuak kudeatu. Gestionar los datos aportados por las personas candidatas a la convocatoria del puesto de trabajo persona técnica de Participación.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA EDO OINARRI JURIDIKOA LEGITIMACIÓN O BASE JURÍDICA DEL TRATAMIENTO	Interesatutako pertsonak emandako baimena. El consentimiento de la persona interesada.
HARTZAILEAK DESTINATARIOS	Datu pertsonalak bestelako erakundeei ematea ez da aurreikusten, ez bada ere horretarako beharrezkotasun edota legezko eskabidea dagoela tarteko. No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal.
PERTSONEN ESKUBIDEAK DERECHOS DE LAS PERSONAS	Datuak, atxiki, zuzendu eta ezabatu eta informazio gehigarrian agertzen den moduan beste eskubide batzuk. Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional.
INFORMAZIO GEHIGARRIA INFORMACIÓN ADICIONAL	Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure web orrian kontsultatu dezakezu: www.egk.eus . Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra web: www.egk.eus .